

IRAKASGAIA: **GRADU AMAIERAKO LANA (GRAL)**

KULTURA ONDAREEN KONTSERBAZIO ETA ZAHARBERRITZEARI buruzko GRADUA

4. IKASTAROA (2. LAUHILEKOA) 6 KREDITU

1. GRALAREN DESKRIBAPENA ETA HELBURUAK

Gradu Amaierako Lanak (GRAL) ibilbide akademikoaren amaiera adierazten du, gradudunaren prestakuntza prozesuan. Nahitaezko eta zeharkako izaera du, eta laugarren eta azken mailako bigarren lauhilekoan egiten da.

Gradu Amaierako Lana da ikasle bakoitzak, tutore baten gidaritzapean, **bakarka eta modu autonomoan** graduan landutako gai bati buruz egindako memoria, azterlan, txosten edo irizpen originala.

Ikasleak frogatu beharko du Kultura Ondareen Kontserbazio eta Zaharberritzeari buruzko Graduak eskaintzen dituen edukiak, gaitasunak eta trebetasunak eskuratu dituela. Horretarako, lana irizpide hauen arabera egin eta defendatu beharko du:

- Graduan eskuratutako gaitasunak aplikatzea, proiektua garatu eta gauzatzea.
- Datuak eta lortutako emaitzak sintetizatzeko eta interpretatzeko gai izatea.
- Idatzizko lan koherente eta ordenatu bat egitea.
- Lanaren puntu nagusien defentsa irmoa egitea jendaurrean, kalitateko ikusentzunezko baliabideak erabiliz eta egiten zaizkion galderei erantzutea, modu argi eta koherentean.

GRAL egin, aurkeztu eta ahoz defendatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko **hizkuntza ofizialetako** edozein aukera daiteke (gaztelania edo euskara).

GRAL, osorik edo atalka, UPV/EHUtik kanpoko erakunde edo organismoetan egin ahal izango da, hezkuntza lankidetzarako hitzarmen baten babesean.

GRAL irakasgaiak 6 kreditu izango ditu, eta GRALerako matrikula dagokion ikasturtean zehar egingo da, Arte Ederren Fakultateko Zentroko Batzordean onartutako egutegian ezarritakoaren arabera, ikasleak titulazioko kreditu guztiak matrikulatuta dituenean.

2. GAITASUNAK

Kultura Ondareen Kontserbazio eta Zaharberritzeari buruzko Graduaren GRALak ondoren zerrendatzen diren gaitasunak erdiestea nahi du, titulazioari lotuta eta graduaren memorian jasotzen den legez:

- Problemak **identifikatu eta ebatzi**, kultur ondasunen kontserbazio eta zaharberritzearen eremuan.
- **Analisi eta sintesi** gaitasuna garatu.
- **Arazoinamendu kritikorako** gaitasuna garatu.
- **Informazioa antolatu, planifikatu eta gestionatu**.
- Hizkuntza ofizialeko **ahozko eta idatzizko komunikazioa** hobetu.
- **Graduan ikasitako jakintzak eta, lana egin bitartean, norberaren autonomiaz ikasitakoak sormenaz integratu**.

3. GRALAK HARTZEN DITUEN JARDUERAK

Gradu Amaierako Lana (GRAL) **irakaskuntza erregularrik gabeko 6 kredituko irakasgai bat** da.

Tutoretza prozesuaren baitan, aurrez aurreko tutoretzak egingo dira, non arian ikaskuntza helburu gero eta konplexuagoak ezarriko diren, irakasgaiak zehaztutako azken helburuen lorpena bermatzeari begira.

Tutoreak jarraipen txosten bat egingo du tutoretza prozesuaren amaieran. Amaierako txosten hau ebaluazio epaimahaiari igorriko zaio, hark kontuan har dezana, bertan islatzen baita, neurri batean, ikasleak irakasgai horretan izandako ikaskuntza prozesuaren ebaluazio jarraitua.

GRAL irakasgaiak prestakuntza ekintza hauek izango ditu bere baitan:

- Orientazio mintegia lana esleitu eta egiteko
- Banakako tutoretza saioak zuzendariarekin.
- Lana paperean eta bertsio elektronikoan egitea eta entregatzea.
- Lana epaimahai baten aurrean azaldu eta defendatzea.

Matrikulak bi deialdi ofizialekara aurkezteko eskubidea emango dio ikasleari ikasturte bakoitzean, egutegi akademikoan zehaztutakoarekin bat etorrita.

4. LANEN TIPOLOGIA

A) Oinarrizko ikerketa teorikoak. Ikasleen intereseko gaur egungo gai edo arazoei buruzko lan deskribatzaileak, edo berrikusketa eta ikerketa bibliografikoak. Honelako lanen muina izango da kultura ondareen kontserbazio eta zaharberritzearen edozein arlotako aztergai esanguratsu eta egoki baten gaineko bibliografia aztertzea.

Lan horien emaitzak izan beharko luke txosten zorrotz bat, aztergaiaren inguruko bibliografiaren egungo egoera erakusten duena edo aztergaiaren kontzeptu eta ereduak biltzen dituen, eta abiapuntu edo bide izan litekeena beste ikerlan enpiriko baterako.

B) Oinarrizko ikerketa enpirikoak: Hauetan ikasleak hipotesiak formulatuko ditu, eta metodologia egituratua eta koherentea erabiliko du emaitza batzuk lortzeko.

C) Lan profesional praktikoak: Lan hauetan kultura ondareen kontserbazio eta zaharberritzearen edozein arlotako kasu praktiko profesional baten deskribapena egingo da. Honelako lanak praktiketako hitzarmen baten barruan egin ahal izango dira, UPV/EHUtik kanpoko erakundeetan. Kasu horietan ikasleak bi zuzendari izango ditu, bata unibertsitatekoa eta bestea erakundeakoa.

5. GRALEKO MEMORIAREN OHIKO EGITURA. AZALPEN OROKORRA

Lan idatziak ezaugarri hauek izan beharko ditu:

- Azalean honako hauek jasoko ditu:
 - Gradu amaierako lana.
 - Kultura Ondareen Kontserbazio eta Zaharberritzeari buruzko Gradua. Arte Ederren Fakultatea. UPV/EHU.
 - Lanaren izenburua.
 - Ikaslearen izen-deiturak.
 - Laneko tutorearen izen-deiturak.
 - Ikasturtea.
 - UPV/EHUren anagrama.
- 150-200 hitzeko laburpena.
- Hitz gakoak izan behar ditu.
- Egindako lanari buruzko gogoeta printzipio eta balio demokratikoei eta garapen jasangarrirako helburuei jarraituz.
- Izenburua koherentea izango da.
- Aurkibideak orrien zenbakiak agertuko ditu.
- 50.000-60.000 karaktere espazioekin (kanpoan geratzen dira: laburpena, aurkibidea, Garapen Jasangarrirako Helburuen gogoeta, erreferentziak, irudien oinak eta eranskinak) irudi kopurua bat etorriko da lanaren tipologiarekin.
- Zuzentasun ortografikoa.
- Irudiak textuan erreferentziatuak agertuko dira.
- Maketazio egokia.

GRALa edozein motatakoa dela ere, **EGITURA** hau gomendatzen da:

→ **Laburpena**

→ **Hitz gakoak**

→ **Garapen Jasangarrirako Helburuak**

Gradu amaierako lan guztietan jasoko da egindako lanari buruzko gogoeta bat, printzipio eta balio demokratikoei eta garapen jasangarrirako helburuei jarraituz egina. Gogoeta horrek aztertuko du GRALak balio horiekin eta GJHeK osatzen duten lan esparruarekin duen lotura, eta/edo horiekiko ikuspegi kritikoak planteatu ditzake. Gogoetak 200 hitz izango ditu gutxienez, eta hitz gakoak eta aurkibidearen artean txertatu beharko da. Gogoeta hau lanaren luzera-tartetik (50.000-60.000 karaktere espazioekin) kanpoan geratzen da laburpena, aurkibidea, erreferentziak, irudien oinak eta eranskinak bezala.

Informazio osagarria: <https://www.ehu.eus/eu/web/graduak/araudia/gradu-amaierako%20lana-egin-eta-defendatzeari-buruzko-arautegia>

→ **Aurkibidea**

→ **Sarrera**

Egoeraren aurrekariak eta egoera. Aztergaiaren edo problemaren definizioa.

→ **Helburuak**

Lanean lortu beharreko helburuen definizioa.

→ **Metodologia**

Planteatu diren helburuak lortzeko “burututako prozedura / egindako lanaren” deskribapen sekuentzialak.

→ **Lanaren garapena / emaitzak / eztabaida**

Emaitzak eta hauen koherentzia konparatu, kontrastatu eta eztabaidatu beste egile batzuekin (halakorik beharko balitz).

Nabarmendu egindako lanaren mugak eta indarguneak.

Emaitzak testuinguruaren barruan kokatu.

Kasuan kasuko gaiaren inguruko proposamen eta/edo gomendio zehatzak, argudiatuak eta egokituak egin.

→ **Ondorioak**

Ondorioak atera eta hasieran planteatutako helburuekin erlazionatu.

→ **Erreferentziak**

Erreferentzia bibliografikoak formatu eta estiloari begira erabilitako arauaren arabera agertzen dira (APA edo ISO, segun zein nahiago)

Testuan ere erabilitako bibliografia aipatu beharko da (informazio idatzia eta grafikoa).

→ **Eranskinak**

6. NOIZ HAS DAITEKE GRALA?

GRAL graduako 4. Ikastaroko bigarren lauhilekoan zehar egingo da, Arte Ederren Fakultateko Zentroko Batzordean onartutako egutegian ezarritakoaren arabera, ikasleak titulazioko kreditu guztiak matrikulatuta dituenean.

7. GRALEKO TUTOREA ESLEITU, IZENA EMAN ETA MATRIKULA EGITEKO DATAK

Aurrez izena emateko epe bat ezarriko da (indarrean dagoen egutegian kontsultatu beharrekoa), ikasleek GAURen argitaratutako eskaintzaren artean aukeratu ahal izan dezaten.

- Prozedura:

1. Irakasleek gaien eskaintza (zehatzak zein orokorrak) txertatuko dituzte GAURen.
2. Ikasleak nahi dituen GrALeko gaiak/tutoreak hautatu beharko ditu, eta horietako bakoitza lehenetsiz joan beharko du.
3. Ezarritako aukera nahi adina daitezke.
4. Argitaratzeko aldia irekita dagoen bitartean, ikasleak bere hautaketa aldatu ahal izango du.
5. Ondoren, esleipena espedientearen batez besteko notaren arabera egingo da, ikaslearen lehentasunaren arabera.
6. Izena emateko epea amaitu ondoren, ikasleek GAUR-en kontsultatu ahal izango dute esleitutako tutorea.

8. GRALAREN AURKEZPENA ETA DEFENTSA

GRALEko matrikula GAUR aplikazioan egiterakoan, ikasleek matrikulari dagokion ikastegiko idazkaritzan aurkeztu beharko dute GRALa paperean eta euskarri informatikoan, lanaren izaerak bestelako formaturik eskatzen ez badu behintzat. Hiru ale aurkeztu beharko dira paperean eta bat euskarri informatikoak, indarreko egutegiak adieraziko lukeen aurrerapenaz.

Ikasleak aurrez aurre defendatu beharko du gradu amaierako lana.

Lana egin, aurkeztu eta defendatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialetako edozein aukeratu daiteke.

Ikasleak defentsa egiteko hamabost minutu izango ditu gehienez, eta tarte horretan bere lanaren helburuak, metodologia, edukia eta ondorioak azaldu beharko ditu. Gero, epaimahaiko kideen galdera, argibide eske, iruzkin edo iradokizunei erantzun beharko die.

9. GRALAREN EBALUAZIOA ETA KALIFIKAZIOA

Alde batetik, GRALeko tutoreak txosten positiboa edo negatiboa igorriko du, GRALaren garapenean ikasleari egindako ebaluazio jarraituari dagokionez.

Bestela, graduco hiru irakaslek osatutako epaimahai batek ebaluatuko ditu idatzizko azken txostena eta ahozko aurkezpena. Ebaluazioa GRALaren AMAIERAKO DOKUMENTUAREN ETA DEFENTSAREN EBALUAZIOA izeneko 1. **ERANSKINEAN** jasotako alderdiak aintzat hartuta egingo da.

Epaimahaiak emandako kalifikazioan, honako haztapan hau egingo da:

- % 70: egindako lanaren kalitatea.
- % 30: defentsarako azalpenaren garapena

Kalifikazioa 0tik 10era bitarteko zenbakizko eskalan emango da, dezimal bakarrarekin, eta kalifikazio kualitatiboa ere adieraziko da:

- 0 - 4,9: Suspentso (S)
- 5,0 - 6,9: Nahiko (N)
- 7,0 - 8,9: Oso ongi (OO)
- 9,0 - 10: Bikain (B)

Ikasleak lana gainditzen ez badu, lana hobetzeko gomendioak biltzen dituen txostena helaraziko dio epaimahaiak, ebaluazioa berriro egiteko.

Deialdiren batean defentsa eskubideari uko eginda, “EZ AURKEZTUA” jarriko da.

10. GRALAREN JABETZA INTELEKTUALA

Gradu Amaierako **Lanak Jabetza Intelektualaren Legeak** babesten ditu (1/1996 Legegintzako Dekretua, apirilaren 12koa). Proiektuaren jabetza intelektual ikasleen eta tutoreen eta/edo enpresa eta erakundearen artean ezarritako akordioaren arabera izango da. Kasu horietarako, JABETZA INTELEKTUAL PARTEKATUAREN II. ERANSKINA (II. **ERANSKINA**) bete eta sinatu beharko da.

11. BESTELAKO GAIAK

- Plagioa:

Plagiotzat hartuko da eta, horregatik, zigortzeko modukoa, bai eta suspentsoa jartzeko ere, behar bezala erreferentziatuko ez diren lan, liburu, pasarte eta abarrak literalki kopiatzea.

- Adimen artifiziala

Adimen artifizialaren erabilerari dagokionez, UPV/EHUko ebaluazio probetan eta lan akademikoetan jokabide makur eta iruzurrezkoak eragotzeari eta etika akademikoari buruzko protokoloa bete behar da. Gainera, aipuak eta erreferentziak APA araudiaren arabera gauzatu behar dira. UPV/EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateak egindako lan akademikoetan adimen artifizialeko aplikazio eta plataformen erabilera erreferentziatzeko gida erreferentzia gisa kontsultatu daiteke https://www.ehu.eus/documents/d/gizarte-komunikazio-zientzien-fakultatea/gkz_aa-lan-akademikoetan

12. LAN KRONOGRAMA

Tutoreak lanaren jarraipena egin ahal izateko, hurrengo kronograma ezartzen da:

- GrAL ekaineko deialdia

Bigarren lauhilekoa hasi eta bi astera	Aurkibidearen + helburuen + lan egingo den bibliografiaren entrega
Bigarren lauhilekoa hasi eta hamar astera	Eduki garatuen entrega
Idazkaritzan entrega baina bi aste lehenago	Azken entrega
Ikastetxeak ezarritako egutegian	Idazkaritzan entrega

- GrAL iraileko deialdia

Tutorearekin adostu beharko dira dagozkion epeak

- GrAL urtarrileko deialdia

Tutorearekin adostu beharko dira dagozkion epeak

I. ERANSKINA GRAL AMAIERAKO LANAREN EBALUAZIOA ETA HAREN DEFENTSA

(GrALeko tribunalak bete beharkoa)

LANAREN TITULUA:

IKASLEAK EGINA:

GrALen EGINDAKO LANA BALORATZEKO TXANTILIOIA (azken notaren % 70) eta AHOZKO DEFENTSA (amaierako notaren % 30)

Dokumentu honen bidez, arreta berezia jarri nahi zaie GrALa ebaluatzeko eta ahozko aurkezpena baloratzeko orduan. "Errubrika" hori Gradu Amaierako Lanak ebaluatu behar dituzten epaimahaikideentzako gida izango da, eta ikasleentzako gida ere izan daiteke Gradu Amaierako Lana egiteko orduan.

EGINDAKO LANA ETA IDATZIZKO MEMORIA (%70)	Adierazlea	Adierazlearen deskribapena
	Alderdi formalak	Azalak araudian eskatutako datuak ditu, izenburua koherentea da, aurkibidea orrikatuta dago, maketazioa egokia da eta ortografia-zuzenketa eta terminologia espezifikoa erabiltzen dira. Taulekin eta irudiekin batera, dagokion irudiaren oina eta/edo taularen goiburua daude, eta testuan behar bezala erreferentziatuta daude, irudiak egokiak dira eta informazio ulargarria eskaintzen dute. Erreferentzia bibliografikoak arau bakar baten arabera agertzen dira formatuari eta estiloari dagokienez (ikasleak lehentasunaren arabera aukeratu behar du). OHARRAK:
	Lanaren egitura	Lanaren etapak behar bezala planifikatu ditu. Lanaren formatua eta egitura zuzenak dira eta ezarritako gutxieneko baldintzetara egokitzen dira (sarrera, helburuak, metodologia, garapena, ondorioak eta erreferentziak) 1 OHARRAK:
	EDUKIAK	Sarrera: Beharrezko informazioa bilatu da, ondo aukeratuta dago eta koherentea da. Aurrekari bibliografikoetan behar bezala hautatu dira esparru teorikoa egiteko edo lanaren gaia justifikatzeko dokumentu-iturriak. OHARRAK:

		Helburuak: Helburuen formulazio argia dago, eta horiek koherenteak dira eta GrAL baten testuinguruan sar daitezke. OHARRAK:
		Metodologia: Egindako metodologiaren aukeraketan hartutako erabakiak arrazoituta justifikatzen dira OHARRAK:
		Lanaren garapena/emaitzak/eztabaida: - Graduan ikasitako ezagutzak eta lana modu autonomoan egitean ikasitakoak sormenez integratzea lortu da. - Kultura-ondasunen kontserbazioaren eta zaharberritzearen arloko arazoak identifikatzen dira, eta horiei egokitutako konponbideak proposatzen/gauzatzen dira. Lortutako emaitzak bibliografiarekin erlazionatzen dira (hala badagokio) eta lan egokiak aipatzen dira eztabaidan Argi dago zein diren emaitza propioak, zein diren beste iturri batzuetatik lortutakoak eta zer den espekulazioaren emaitza Erabakiak hartzea justifikatuta dago eta emaitzak koherenteak dira eta argudiatuta daude OHARRAK:
		Ondorioak: Koherenteak dira, modu sintetikoan adierazten dira eta planteatutako helburuei erantzuten diete. OHARRAK:
	Bibliografia / Erreferentzia bibliografikoak	Testuan behar bezala aipatzen da erabilitako bibliografia (informazio idatzia eta grafikoa) OHARRAK:
AHOZKO DEFENTSA	Adierazlea	Adierazlearen deskribapena
	Hitzezko eta hitzik gabeko	Aurkezpena argia eta ordenatua izan da OHARRAK:

	komunikaziorako trebetasunak	
	Emaitzen eta ondorioen aurkezpena	Emandako informazioa zuzena eta egokia izan da Jarraitutako argudiaketa edo arrazoiketa sinesgarria da OHARRAK:
	Hizkuntzaren erabilera	Terminologia propioa eta zehatza erabiltzen da OHARRAK:
	Aurkezpenaren kalitatea	IKT baliabideak modu egokian erabili ditu OHARRAK:
	Epaimahaikideen galderei emandako erantzunak	Behar bezala erantzun zaie ebaluazio-batzordeko kideek egindako galderei OHARRAK:

Kultura Ondasunen Kontserbazio eta Zaharberritze graduko GRALaren gaitasunak:

- Kultura-ondasunen kontserbazioaren eta zaharberritzearen arloko arazoak identifikatzea eta ebaztea.
- Analisi- eta sintesi-gaitasuna garatzea.
- Arrazoiketa kritikoa egiteko gaitasuna garatzea.
- Informazioa antolatzea, planifikatzea eta kudeatzea.
- Hizkuntza ofizialetan ahozko eta idatzizko komunikazioan aurrera egitea.
- Graduan ikasitako ezagutzak eta modu autonomoan ikasitakoak sormenez integratzea, lana gauzatzean.

II. ERANSKINA. PARTEKATUTAKO JABETZA INTELEKTUALAREN ESKAERA

GRADU AMAIERAKO LANA/TRABAJO FIN DE GRADO

PARTEKATUTAKO JABETZA INTELEKTUALAREN ESKAERA/SOLICITUD DE PROPIEDAD INTELECTUAL COMPARTIDA

Izen-abizenak/Nombre

Apellidos.....

Helbidea/Dirección (Kalea, Zkia., Posta-Kodea, Herria/Calle, Nº, C.P., Localidad).....

.....

Telefona/Teléfono.....NAN/DNI.....

Gradua/Grado.....Ikasturtea/Curso

Académico:.....

Erregistro zenbakia/Nº de Registro

GRALaren izenburua / Título del TFG:

.....

.....

.....

.....

.....

GRALaren zuzendaria/k / Director/a/s del

TFG:.....

Parte hartzen duen erakundea (hala behar balitz)/Institución que participa (si procede)

.....

.....

Partekatutako jabetza intelektualaren zergatia / Justificación de la solicitud de propiedad intelectual compartida:

.....

.....

.....

.....

.....

GRALaren Zuzendari(ar)en O.E. /
VºBº del Director/a/s del TFG

Erakundearen O.E./ VºBº de la Institución

Leioan,(ko)arena

En Leioa, a de de

HONAKOA ESKATZEN DU:

*GRALaren jabetza intelektualak partekatua izatea
azpian sinatzen duenaren eta GRALaren
Zuzendariaren artean*

SOLICITA:

Sea admitida la solicitud de propiedad intelectual
compartida entre el abajo firmante y el/la Director/a del
TFG

Ikaslearen izenpea / Firma del/ de la alumno/a